

Gaur zentratzen gara kooperatibista izateko modua laburtzen duen pentsamendu sakon, labur eta sendo batean. Pertsona izateko modu bat suposatzen duen modu bat. Eskatzen diguna, askatasun kontzientzia, justizia soziala, giza garapen kontzientzia. Guzior eta bakoitzaren parte-hartzea, alegia.

**Giza balioak giza kontzientziarekin leial izanda baino ez dira lortzen. 149**

Bere hitzek durunda dezakete, gure portaeretara eta jotzen dugun azalpen errazetara, bizi izateko gure modurako kritika garrantza bezala:

**Gaur egun ohituta gaude errua erakundeei egoztera, forma politiko eta sozialei egoztera, aldi berean soluzio guztiak erakunde berrietatik, forma politiko eta sozial berrietatik, etorriko zaizkigula uste dugularik. 150**

Oso planteatzen digun autoesigentzia mailaz jakitun da:

**.... eta gizakiak ez dira aldatzen bakarrik kanpokoek emandako karguekin; gizakiek beren bihotzetatik eta beren kontzientziekin leial izan-da baino ez dituzte duintasuna, zintzotasuna eta zorrozatasuna eskuratzen. Eta ez dugu nahi horretaz hitz egin, ez dugu nahi horretan pentsatu.**

Eta gure gizartearen geroaldiari ekiteko modua transmititzen digu argi eta garbi:

**Herrien zoritxarrik handiena ez da hain zuzen forma politiko edo sozial jakin batzuk izatea, zentzu moralik ez egotea eta kontzientziak indarririk ez izatea baizik. Herri batek zentzu morala eta kontzientzia galdu baditu, ezingo die bere gaitzei aurre egin eta bakarrik indarra gehiegi erabilia arindu ahal izango ditu gaitz horiek, aldi berean gizakia doilortuta eta basati bihurtuta. 150**

Ordena Berriko sorrerarako beharrezkoa den Gizon berria izatera irixteko, gizaki historioaren ikuspuntua aldatu, lana, ekonomia eta politika eritziak, pentsamendu kooperatibistaren berezko perspektibatik gureganatuz. Ez bakarka, elkarlanean baizik.

Kontzientziaz jabetuz, historia egingo duela uste du. Askatasuna, justizia soziala, giza garapena eta parte-hartzaile kontzientzia, dira oinarri. Kooperatibista izatea, pertsona izatea berezko modua da.

Eta noski, hori ez egitekotan, ondorioak zoritxarrekoak izango dira gure herrirentzako:

**Kontzientziarik gabeko herriak beti krudeltasun zital batean erortzen dira, non senak irrazionalengan sortarazten duen ordena eta harmonia bera desagertzen diren. 141**